

## **GATAZKEN JUDIZIOZ KANPOKO KONPONBIDEARI BURUZKO ARAUDIA**

### **1. artikulua.- Helburua**

Araudi honek Euskal Tenis Federazioko estatutuetan gatazken judizioz kanpoko konponbidearen arloan aurreikusitakoa garatzea dauka helburu.

Gatazkek judizioz kanpo konpontzeko orduan, honako hauxe hartu beharko da kontuan: arbitrajea eta adiskidantza arautzen dituen indarreko legeria publiko berezian araututakoa, arbitrajeari buruzko legerian xedatutakoa eta kirolen arloko gatazken judizioz kanpoko konponbiderako beste formula batzuetan adierazitakoa.

Esparru juridiko orokorraren eta Euskal Tenis Federazioko estatutuen osagarri, honako hauexen artean sortu daitezkeen gatazkek edo aldeak judizioz kanpo konpontzeko edo arbitrazeko araubidea arautzen du araudi honek:

- Federazioaren eta bertako federatuen edo beste kide batzuen artean.
- Federatuen euren artean eta/edo federazioko kideak diren beste pertsona batzuekin, federatuta dauden ala ez kontuan hartu gabe.
- Federazioaren, bertako federatuen edo federazioko kideen eta federaziokoa ez den beste edonoren artean, hirugarren horrek berariaz men egiten badu.

### **2. artikulua.-**

Administrazioak Euskal Tenis Federazioari eskuordetutako funtzio publikoen betearazpenarekin eta legez zein berariaz arbitrajepean ez dauden gaiekin zerikusia daukaten kontuak izan ezik, gainerako guztiak sistema honen bitartez ebatzi ahal izango dira.

### **3. artikulua.- Subjektuak**

Euskal Tenis Federazioak, bertako federatuek, federazioko kideek eta federaziora atxikitako kirol taldeek eta elkarreek borondatez men egingo diete araudi honetan araututako arbitrajeari eta, horren ondorioz, Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegiari eta bere araei.

### **4. artikulua.- Prozedura**

4.1.- Federazioko lizentzia daukatenak gatazken judizioz kanpoko konponbiderako sistemaren eraginpean egongo dira, beti ere lizentzia lehen aldiz egiten zaien egunetik hasi eta hileko epean edo araudi hau argitaratzen denetik hilabeteko epea igarotakoan berariaz uko egin ez badiote, Euskal Tenis Federazioan kasuan kasuko uko-idazkia aurkeztuta.

4.2.- Euskal Tenis Federazioko lizentziarik ez daukaten federazio-kideak (presidentea, zuzendaritza-batzordekideak, zuzendariak, teknikariak...) ere gatazken judizioz kanpoko konponbiderako sistemaren eraginpean egongo dira, beti ere kideak direnetik hasi eta hileko epean edo araudi hau argitaratzen denetik hilabeteko epea igarotakoan berariaz uko egin ez badiote, federazioan kasuan kasuko uko-idazkia aurkeztuta.

4.3.- Euskal Tenis Federazioan izena eman duten kirol taldeak eta elkarteak ere gatazken judizioz kanpoko konponbiderako sistemaren eraginpean egongo dira, beti ere federazioan izena ematen dutenetik hasi eta hileko epean edo araudi hau argitaratzen denetik hilabeteko epea igarotakoan berariaz uko egin ez badiote, federazioan kasuan kasuko uko-idazkia aurkeztuta.

4.4.- Honako datu hauek agertu beharko dira uko egiteko idazkian:

- Uko egiten duen pertsonaren edo erakundearen filiazio-datuak (izen-abizenak edo sozietatearen izena, helbidea eta IFZ).
- Lizentzia-zenbakia, egokia denean.

Euskal Tenis Federazioak ukoa idatziko du federazioak berak horretarako bakarrik prestatutako liburuan.

## **5. artikulua.-**

5.1.- Euskal Tenis Federazioak honako inguruabar hauetan bakarrik emango die uko-egintzaren berri hirugarren pertsonari:

- Hirugarren pertsona horrek Euskal Tenis Federazioko lizentziaren titularrarekin edo kidearekin sortutako aldearen edo gatazkaren inguruko informazioa eskatzen duenean eta araudi honetan araututako gatazken judizioz kanpoko konponbiderako sistemaren eraginpean egon nahi duenean.
- Euskal Tenis Federazioko lizentziaren titularrak edo kideak ukoaren ezeztapen orokorra egiten ez duenean.

5.2.- Eskabidea jasotzen duenetik hasi eta 7 eguneko epean, Euskal Tenis Federazioak erantzuten ez badu, Euskal Tenis Federazioko lizentziaren titularrak edo kideak arbitrajeari uko egingo diola adierazi nahi izango du.

5.3.- Hirugarren pertsonak idatziz eskatu beharko dute informazioa, eta Euskal Tenis Federazioak idatziz erantzun beharko du.

## **6. artikulua.- Hasieran uko egin ondoren, arbitrajean sartzeko prozedura**

6.1.- Hasiera batean arbitrajeari berariaz uko egin dioten arren, federatuek eta Euskal Tenis Federazioaren gainerakoak gatazkak konpontzeko sistema horren eraginpean oro har edo gatazka edo alde zehatz baten konponbiderako bakarrik egon nahi badute, eskaera egin beharko dute, eta men egiteko

konpromisoa sinatu beharko dute, araudi honetako eranskinean adierazten den bezala.

6.2.- Gatazkak judizioz kanpo eta arbitrajearen bitartez konpontzen dituen sisteman sartzeko eskabideak balioa izan dezan, idatziz egin beharko da eta interesdunak sinatu beharko du.

6.3.- Eskabide hori Euskal Tenis Federazioan edo Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegian aurkeztu beharko da.

6.4.- Euskal Tenis Federazioak 15 eguneko epean ebatzi beharko du sisteman sartzeko eskabidea, eta interesdunari idatziz jakinarazi beharko dio zer erabaki duen.

## **7. artikulua.-**

Gatazken judizioz kanpoko konponbiderako sistemaren eraginpean oro har egoteko eskabidea denean, edonoiz aurkeztu ahal izango da.

Federazioaren ebazpena proposatutako eskaeraren aldekoa bada, federazioak ofizioz emango dio baja araudi honetan aurreikusitakoaren arabera bere garaian egindako uko-idazpenari.

## **8. artikulua.-**

Arbitrajepean egoteko eskabidea gatazka edo alde zehatz baten konponbiderako bakarrik denean, pertsona edo erakunde interesdunak euskal Tenis Federazioan edo Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegian aurkeztu beharko du eskabidea, hirugarren interesatuak edo Euskal Tenis Federazioak, hirugarren pertsona horrek eskatuta, eskaera egin duenetik hasi eta hurrengo 15 egunetan.

## **9. artikulua.-**

Euskal Kirol Federazioen Batasunak eraturako Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegia izango da arbitrajeaz eta gatazken judizioz kanpoko konponbidez arduratuko den organoa.

## **10. artikulua.-**

Arbitrajea eta, hala badagokio, gatazken judizioz kanpoko konponbiderako beste edozein sistema ezartzeko prozedura Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegiak berak aurreikusitakoa izango da.

## **11. artikulua.-**

Borondatez edo nahitaez, auzitegiko bertako Kirol Arbitrajerako Kodean berariaz aurreikusitako moduan betearaziko dira Kirol Arbitrajerako Euskal Auzitegiaren laudoak.

## ERANSKINA

### a) Federatuentzako eredia

..... jaun/andreak, ..... NAN zenbakia duenak, ..... helbidea duenak eta Euskal Tenis Federazioko lizentzia duenak, idatzi honen bidez adierazten du federazioak gatazken judizioz kanpoko konponbiderako zehaztutako eta araututako sistemari berariaz men egiten diola, federazioaren eta sinatzen duenaren artean edo sinatzen duenaren eta Euskal Tenis Federazioko kideen edo beste federatu batzuen artean sortu daitezkeen aldeak edo gatazkak konpontzeko orduan.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Iz.:

### b) Federazioko kideentzako eredia

..... jaun/andreak, ..... NAN zenbakia duenak, ..... helbidea duenak eta Euskal Tenis Federazioko kidea denak, idatzi honen bidez adierazten du federazioak gatazken judizioz kanpoko konponbiderako zehaztutako eta araututako sistemari berariaz men egiten diola, federazioaren eta sinatzen duenaren artean edo sinatzen duenaren eta Euskal Tenis Federazioko kideen edo federatuen artean sortu daitezkeen aldeak edo gatazkak konpontzeko orduan.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Iz.:

### c) Kirol talde eta elkarteentzako eredia

..... jaun/andreak, ..... NAN zenbakia duenak, .....(a)(r)en izenean eta ordezkari moduan diharduenak, ..... helbidea duenak, ..... IFZ zenbakia duenak eta Euskal Tenis Federazioko lizentzia duenak, idatzi honen bidez adierazten du federazioak gatazken judizioz kanpoko konponbiderako zehaztutako eta araututako sistemari berariaz men egiten diola, federazioaren eta sinatzen duenaren artean edo sinatzen duenaren eta federazioko beste kide batzuen, federatuen edo kirol talde edo elkarten artean sortu daitezkeen aldeak edo gatazkak konpontzeko orduan.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Iz.: